

Gatazka gaiztotzen ari da hainbat hilketaren ondorioz

Hogei kaputxadunek Werner Luchsinger enpresa gizon eta latifundista txiletarraren etxea erre zuten urtarrilaren 4an. Barruan hil ziren bera, eta Vivian McKay emaztea. Ordutik, Maputxe herrian edo Wallmapun giro politikoa asko gaiztotu da.

| LANDER ARBELAITZ |

MAPUTXEEI EGOTZI dizkiete urtarrilaren 4ko gertaerak eta Txileko presidente Sebastián Piñerak Pinocheten ondaretik asko duen Lege Antiterroristaren erabilera zorrotza agindu du. Jada polizia operazioak egiten ari da maputxeen hainbat herritan. Orain lau urte poliziak tiroz hildako Matías Catrileo 22 urteko maputxearen izena berriz azaleratu da, itxi gabeko zauriekin gertatu ohi den bezala.

Maputxe herriaren eta Txileko Estatuaren arteko harremanak zailak dira. 1883tik indigenek beren lurraldea aldarrikatu dute, eta Estatuak nolabait esateko, guda deklaratu die, beren oinarritzko eskubide asko ukatuz.

Egun 800.000 maputxe inguru bizi dira, gehienak herrialdearen hegoaldeko La Araucanía eta inguruetan. Piñera egungo presidente eskuindarraren gobernuarekin zuten harreman txarra erabat gaiztotu da 2013a hasi denetik. Hementekak begiratu besterik ez dago ikusteko Piñerak jatorrizko herri honekiko duen ezinikusia, herrialdeko hedabide nagusiak lagun dituela zabaldua. *Terrorista* terminoa hitzetik hortzera darabilte maputxeen gaiak jorratzean.

Ekintzaile maputxeek beren lurretan ezarritako latifundisten aurkako erasoak egin izan dituzte, ondasunei su emanaz, eta normalean hildakorik eragin gabe.



Urtarrilaren 4an Matías Catrileoren heriotza gogoratzen dute maputxeek, 2008an poliziak tiroz hildako aktibista.

Mapuexpress webgunean ere, urtarrilaren 4ko ekintza egin zutenek “marra gorria gurutzatu” zutela diote. Baina zergatik hil dituzte Luchsinger eta bere emaztea?

Matías Catrileoren heriotza

2008an Txileko poliziak Matías Catrileo tiroz hil izana gakoa da egun La Araucanía gertatzen ari dena ulertzeko. Mapuexpress gunean horrela azaldu dute: “Kaputxadunek Luchsingerri, bere emazteari eta beren ondasunei su eman bazioten, Catrileoren heriotza gogoratzeko ekintzen barruan izan

“Catrileoren heriotzak piztu zuen orain lehertu den bonba honen metxa”, dio Mapuexpress webguneak

zen. Catrileoren heriotzak piztu zuen orain lehertu den bonba honen metxa”.

Latifundisten aurkako ekintza batean, Catrileo eta beste kide batzuk Luchsingerren lurretan sartu ziren (1.200 hektarea), maputxeek berena dela aldarrikatzen duten eremuan. Txileko Lege Antiterroristak baimenduta, Estatuak ordaindutako segurtasun indarrak ari ziren lur horiek zaintzen, eta maputxeak eremuan sartu zirela ikusirik poliziak tiroka hasi ziren. Catrileo bizkarrean jo zuen bala batek, birika zulatu zion,

eta minutu gutxiren buruan hil zen. Ihes zihozten maputxeek gorpua eraman zuten eta irrati komunitarioen bidez bolbora baino azkarrago zabaldu zen albiste, egunkari nagusietara iritsi arte. Tiro egin zuen polizia frogak faltsutzen saiatu zen, eta azkenean militarrek epaitu zutenean, ez zuten zigortu. Egun polizia-gorputzean lanean jarraitzen du.

Geroztik justizia eske dabilta maputxeak, gaztea beren kausaren sinbolo bilakaturik. Urtarrilaren 4an Catrileoren memoria gurtzen dute maputxeek.

Luchsingerren eta McKayren heriotzaren ondoren, Txileko Estatuak poliziak militarra eramaten ari da maputxeak bizi diren eremuetara; horrek istiluak eragin ditu poliziarren eta herritarren artean. ■

